


AIA • GETARIA • ORIO • ZARAUTZ • ZUMAIA ■ KIROL ALDIZKARIA

sasoiari

2012ko uztaila

30. zenbakia


urgas energia



naturgas ener

naturgas ener

urgia



edp naturgas energia



LONDRESKO OLINPOAN

Oiana Blanco judoka, Mikel Agirrezabalaga eskubaloia jokalaria eta Ainhoa Murua triatleta Olinpiar Jokoetan lehiatzeko prest daude

Erredaktorea

Aritz Mutiozabal
Harremanetarako: 607 615 239
e-posta: sasoian@sasoian.info

Argazkiak

Azala: BAT Basque Team.

Sasoian 2.0: Bai Euskarari
Ziurtagiriaren Elkarteak.

Beroketa: Urola Kostako Hitza.

Olinpiar Jokoak: Oiana Blanco, Paco Lozano, Àlex Caparrós-Futbol Club Barcelona, Nacho Cembellin-Victory Endurance eta Urola Kostako Hitza.

Kirolari gazte: Real Sociedad eta Urola Kostako Hitza.

Hariari tiraka: Raul Castaneda-San Miguel Liga, Jai-Alai, Lorentxo Portularrume eta Urola Kostako Hitza.

Erronka: Alexander Klaussen-Sarpsborg'08.

Diseinua

Roberto Gutierrez

Maketazioa

Saioa Perona

Edukien garapena

Urola Kostako Hedabideak EM

Inprimategia

Gertu

Argitaratzailea

SASOIAN aldizkaria **Urola Kostako**

Udal Elkarteak argitaratzen du.

Aldizkari honek Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako kirol albisteak jasotzen ditu.

www.sasoian.info



Urola Kostako Udal Elkarteak

kudeatzen du sasoian.info webgunea.

Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako kirol albisteak, agenda nahiz emaitzak topatuko dituzu bertan.



Bai Euskarari Laguna saria jaso du Joxe Angel Iribarrek



Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak Bai Euskarari Sariak banatu zituen, ekainaren 18an, Bilboko Euskalduna Jauregian eginiko ekitaldian. Euskara enpresetan txertatzeko egindako ahalegina saritu nahian, Ziurtagiriaren Elkartearen zuzendari Rober Gutierrez Arlan eraikuntzako eta industriako hornigaien enpresa eta Skunkfunk moda-etxea saritu zituen aurten. Horretaz gain, Athletic futbol taldeko atezain ohi eta Athletic Club Fundazioko kide Joxe Anjel Iribar zarautzarrak Bai Euskarari Laguna oroigarria jaso zuen, bere ibilbide osoaren aitorten gisa.

Kirolean ez ezik, Euskal Herrian ere erreferente garrantzitsua izan da betidanik Iribar, euskararekiko erakutsi duen konpromiso eta jarrera aktiboagatik. Bai Euskarariren webgunean egin zioten elkarrizketan adierazi zuenez, saria jasotzea «sorpresa polita izan da, batez ere nondik datorenen ikusita». Bere esanetan, «estimua handia diot euskararen aldeko mugimenduari, eta kasu konkretu honetan, Bai Euskarari Ziurtagiriari enpresa mundua euskaldunetzeko egiten duen ahalegina eredu garria

dela uste dut». Sarietarako, aitortenarako eta horrelako kontuetarako «oso lotsatia» dela onartu arren, euskararen inguruko mugimenduetatik datozenean ezezko ezin duela eman adierazi zuen atezain zarautzarrak.

Bere iritziz, euskarari egin dion ekarpenik handiena «erabilera bera» izan dela nabarmendu zuen elkarrizketan: «Hemen, Athletic-en, edota lagunartean euskaraz hitz egiten dut, eta ingurukoak ere euskaraz mintza daitezten ahalegintzen naiz; nolabait esatearren, akuilu lana egiten dut. Ahalegin hori oso naturala da; euskaldunzaharra naiz, eta euskara nire apendiz bat gehiago bezala sentitzen dut. Benetan esango dizut, euskaraz gaztelaniaz baino erosoago sentitzen naiz».

Lezamako kirol-gunean euskararen erabilera izan duen gorakada ere agerian utzi nahi izan zuen: «Saiatzen gara euskararen presentzia bermatzen. Harrobiko entrenatzaile gehienek euskara menperatzen dute, eta entrenamendu saioak euskaraz zuzentzen dituzte. Honek ez du esan nahi gaztelaniara ez dutenik jotzen, baina urte batzuetatik hona egoerak onera egin du».

Anima zaitez taula gainean jartzen, zeure kabuz

Urte osoan praktikatu daitekeen arren, badirudi uda dela surfaren urtaroa. Jende gehien animatzen den urteko sasoa da. Probatzeko eta lehen urratsak egiteko momentu egokia. Horretan, behintzat, ez dago zalantzarik. Horretarako bi aukera daude: eskualdeko hondartzetan eskaintzen dituzten surfikastaroetan izena ematea, edo norbere kabuz moldatzea. Bigarren aukeraren alde egiteko asmoa baduzu, segi irakurtzen.

Entrenamendua eta iraunkortasuna eskatzen duen kirola da surfa. Zentzu horretan, akats ugari egin ohi dira hastapenetan, eta etsigarria ere izan daiteke, taula gainean berehalakoan zutik jarri ezean. Beraz, ikasteko gogoia eta pazientzia handia izatea ezinbestekoa da hasiberriarentzat.

Lehen urratsak taula egoki batekin egitea komeni da; hau da, flotazio, oreka eta maniobratze ona duen ohol batekin. Askok, normala denez, norbaitek utzitako edo bigarren eskuko batekin ekiten diote surfari. Batzuentzat baliagarria izango den arren, beste batzuentzat ez du balioko. Izan



ere, norbere parametroetarako eta beharretarako ekoizitakoak izan behar dute; bestela, dezente zailduko du ikastaldia. Trebatzen hasteko, taula luze eta zabalak dira aproposenak. Itsasoa bera ere oso kontuan hartu behar da. Olatu handiak

daudenean nekez asmatuko du ezer egiten, eta itsas korronteez ere jokaldi makurra pasarratz diezaioke. Hasierako saioak itsasoa lasai dagoen egunetan egin behar dira, sakonera handirik ez duten lekuetan, eta inguruan jende askorik ez dagoela.

OINARRIZKO PAUSOAK

- Taula gainean etzaten, esertzen eta arraun egiten ikasi behar da.
- Lehen mugimenduak menderatuta, olatuekin jolasten has gaitezke: olatu txikiak aukeratu eta horiek hartzerakoan aparretan jarraitu arraunean. Ariketa horrekin distantzia, denbora eta taularen oinarriko erabilerara ohituz joango gara.
- Hurrengo pausoa taula gainean zutitzea izango da. Aldi bakar batean altxatzea lortu behar dugu, bi hankak aldi berean jarriz, jauzi bizkor batekin. Hanka bat bestea baino azkarrago jarriz gero, uretara erortzeko arriskua izango dugu. Beraz, kontuz!

HAINBAT GOMENDIO

- Oinarriko pausok menderatzea da konplexuena. Lasai eta modu sinplean abiatzea komeni da. Horretarako, hona hemen gomendio batzuk:
- Altxatzerakoan eskuak ez jarri taula hegaletan, baizik eta modu lauan.
 - Taula gainean etzaterakoan, flotazioaren eta simetriaren ardatza ahalik eta zuzenen mantendu behar da; hau da, punta gehiegi altxa edo hondoratu gabe.
 - Altxatzean ez geratu tente. Gorputza pixka bat aurrerantz okertu.
 - Beroketa ariketak egin, lesioak ekiditeko.
 - Hastapenetan ez praktikatu hondo harrokatsuetan.
 - Surfarien trafiko-arauak errespetatu: norbaitek olatua hartu badu, atzera egin eta pasatzen utzi.

OLINPIAR JOKOAK





Hirugarrenez Londres izango da Olinpiar Jokoen hiri antolatzaileria; lehena 1908an ospatu zuten eta bigarrena, berriz, 1948an (hasiera batean, 1944an jokatzekoak ziren, baina II. Mundu Gerrak bertan behera utzi zuen egitasmoa). Uztailaren 27tik abuztuaren 12ra arte izango dira, eta, bi aste horietan, 29 kirol modalitatearen nazioarteko erakusleho garrantzitsuena izango da. Azken urteetako joera jarraituz, oraingoan ere, eskualdeko hainbat kirolari bertan lehiatzeko txartela lortu du. Aurten, hiru izango dira Urola Kostako ordezkariak: Ainhoa Murua triatleta zarautarra, Mikel Agirrezabalaga eskubaloijokalaria zarautarra eta Oiana Blanco judoka oriotarra, hain zuzen ere.

Londresko hitzorduari agur esan dietenen artean, berriz, Iñigo Peña piraguista zumaiarra eta Orioko arraunlari Edorta de Anta daude. Peñak lana gogotik egin badu ere, ez du zortetik izan: iazko abuztuaren, Espainiako K-4 ontziarekin Munduko Txapelketa jokatu zuen, baina ez ziren finalerako sailkatu, eta, ondorioz, ametsak uxatu egin ziren. Aurten, K-1 ontzian sailatu da, Espainiako hautaketa estropadan, baina ezin izan du tokirik lortu.

De Antaren kasuan, berriz, federazioaren erabaki teknikoek izan dute eragina. Arraunlariak Paralinpiar Jokoen parte hartzeko txartela lortu zuen iaz, Esloveniako jokaturako Arraunketa Egokituko Mun-

Olinpiar Jokoak nazioarteko kirol ekitaldirik garrantzitsuenak dira. Kirolari oren ametsa da bertan lehiatzea. Urola Kostak askotan izan ditu ordezkariak. Eta Londresen ere izango ditu.

duko Txapelketan, baina, aurten, Juan Pablo Barcia asturiarra hobeto ibili denez, azken honi eman dio Jokoen aritzeko aukera.

Aitzindariak bada

Helmuga ez ezik, Londres abiapuntua ere izan zen. Juan del Campo Esteibar zumaiarra izan zen Jokoen batzuetan parte hartu zuen eskualdeko lehen kirolaria. Belar hockeyko Espainiako taldearekin Londresen bertan izan zen, 1948an, eta domina lortzetik gertu geratu zen, laugarren sailkatuz. Hamabi urte lehenago, Isidoro Unzueta korrikalaria zarautzarrak Berlingo Olinpiar Jokoen txartela lortu zuen, 5.000 metroan. Tamalez, ezin izan zuen parte hartu, 1936ko Gerrak bertan behera utzi baitzituen haren ametsak.

Atletismoan maila handiko ordezkariak izan badira ere, inork ez du lau urteko txapelketa honetan jokatu. Jose Migel Maiz aiarra maisua izan zen krossean, eta 1968ko Donostiako Krossean Mamo Wolde txapeldun olinpikoa garaitzeko gai izan zen. Hala ere, ez zen urte hartako

ko Mexikoko Jokoen izan. Aiako Salbardin baserrian bizi den Maria Luisa Irizar Espainiako txapeldun izan zen maratoian. Hala ere, federazioak ez zuen Seulera eraman 1988an, horretarako aurrekonturik ez zuela argudiatuz. Lau urte geroago ez zuen zorte hobirik izan; neumonia batek 1992ko Bartzelonako hitzordutik kanpo utzi zuen. Kamel Ziani oriotarra ere aukerarik gabe geratu zen Pekingo 2008ko txapelketarako, oin-azpiko lesio baten erruz.

Orio arraunaren sorleku izaki, hainbat arraunlari izan ditu Jokoen. Jose Luis Korta izan zen lehena, 1980an, Moskun; zazpigarren sailkatuta, diploma olinpikoarekin itzuli zen etxera. Ondoren, Ibon Urbietak eta Jose Luis Agirre Seulen izan ziren; eta Urbietak bigarrenez parte hartu zuen Bartzelonan. Azkena, Eva Mirones izan zen, Atenasen, 2004an. Egun, Orioko traineruan arraunlari dabilen Oier Aizpurua zumaiarra ere Atenasko hitzordurako txartela lortzen sailatu zen, piraguismoan, Espainiako K-4 ontziarekin, baina ez zuen lortu.

Ainhoa Murua triatleta Atenasen izan zen eta, duela lau urte, Pekinen. Azken Jokoen beste herrikide bat izan zuen bidaide: Borja Iradier igerilari. Lehen kirolari zarautzar olinpikoa, ordea, Karmele Makazaga eskubaloijokalaria izan zen. Espainiako selekzioko kapitaina izan zen urte askoan, eta Bartzelonan diploma olinpikoa eskuratu zuen.

Oiana Blanco

Judoka

«Aurkari gogorren aurka irabazita, dominak zapore hobe du»

Olinpiar Jokoetan parte-hartea zen judoka oriotarraren **betiko ametsa, eta uztailaren 28an amets hori egia bihurtuko du, Londreseko **tatamira** igo eta borrokan hasten denean**

Londreseko Olinpiar Jokoen lehen egunean, uztailaren 28an, tatami gainera igoko da Oiana Blanco (Orio, 1983). Gauzak argi eta garbi ditu: domina bat lepotik zintzilik duela itzuli nahi du etxera. Garaipen bidea, ordea, ez da erraza izango. Txapelketa osoa egun horretan jokatuko dute; izan ere, 48 kiloz azpiko emakumezkoen kanporaketa guztiak goizeatik eguerdia bitartean izango dira, eta finalera iritsiko balitz, 16:00etan lehiatuko luke. Jardunaldi gogorra izango denez, ez da bezperan egingo duten Jokoen irekiera ekitaldian izango: «Bizipen ikaragarria izanagatik, ordu asko da zutik, eta hurrengo egunean dena emateko prest egon behar dut».

Pekineko Olinpiadek ihes egin

zizutenetik, Londres izan duzu buruan. Lau urtez helburu jakin baten atzetik ibiltzea ez al zaizu gogorra egin?

Alde batetik, gogorra izan da. Lau urtetan txapelketa asko jokatu ditut, ia atsedetik gabe. Bestetik, emaitzak lortzen joan naizela ikusita, eta gero eta hobeto nengoela ikusita, denboraldia arinagoa egiten zitzaidan. Konturatzeko urtea pasatu eta Munduko Txapelketan nengoen berriro ere. Gogorra izan da, baina azkar pasatu da.

Fisikoki ez ezik, psikologikoki ere ongi prestatuta egon behar zenuen. Erronka ez al zitzaizun obsesio bihurtzen tarteka?

Buruan beti nituen Londreseko Olinpiar Jokoak, baina unean uneko txapelketetan jartzen nintzen burubelari. Azken finean, benetako helburua lortzeko, pausoz pausoz eta txapelketaz txapelketa joan behar da. Une bakoitzean egin beharrekoa ongi egiten saiatu naiz. Zalantzarik gabe, xedea Londresera iristea zen, baina gehiegi obsesionatu gabe.

Behin helburua lortuta, lasaia-

go al zaude orain? Ala ez da komeni horrenbeste lasaitzea?

Ez naiz batere lasaitu. Helburu bat lortu dut, eta oso pozik nago. Edonola ere, kirolariok anbizio handia izaten dugu eta beti nahi dugu gehiago. Olinpiar Jokoetarako sailkatu nintzen egunetik, jada hartarako prestatzen hasi ginen. Hasierako helburua lortuta, orain hara joan eta lehiatzea da nire nahia.

Londreserantz abiatu aurretik, zein izan da zure prestatuta edo entrenamendu egutegia?

Ekainaren erdialdera arte etxean aritu naiz entrenatzen, Usurbilen. Ondoren, bi astez Japonian izan nintzen entrenatzen, Yamanashi unibertsitatean. Azken finean, judoa Japoniatik dator, eta japoniarrak dira maila gehien dutenak kirol honetan. Handik bueltatu eta Castelfelersera joan nintzen, Espainiako Judo Federazioak antolatutako nazioarteko kontzentrazioa. Bertan, mundu zabaleko judokak egin genuen bat aste-betez. Astebete etxean pasatu ondoren, eta Londresera abiatu aurretik, bost egunez izan nintzen Madrilen



Espainiako selekzioarekin. Topera ibili naiz, egia esan.

Zer da zuretzat Olinpiar Jokoe-tan parte hartzea?

Betidanik borrokatu dudan zer baita. Judoan munduko txapelketa garrantzitsuena da; beharbada, beste batzuetan ez da horrela, baina judoan, behintzat, gorenena da. Orduan, hor egoteagatik borrokatzen duzu. Azkenean, helburu hori lortu dugu, eta oraingoz ez nago urduri. Eguna iristen joan ahala eta hara iritsitakoan, gauzak aldatuko dira. Momentuz, eguneroko lanean nago kontzentratuta. Halako txapelketa bat prestatzea sufrimendu handia da, baina gustura ari naiz.

Orain arteko ametsa Olinpiar Jokoe-tan parte hartzea zen. Hurrengo ametsa dominaren bat leporatzea al da?

Bai, noski. Dominaren bila noa, zalantzarik gabe. Orain arte jokatu ditudan txapelketetan argi erakutsi dut maila onean nagoela, hor gaudela podiumera igotzeko borrokatzeko postuetan. Jakina, egun guztiak ez dira

OIANA BLANCO
judoka
oriotarra
hilaren 27an
lehiatuko da.

berdinak, eta Olinpiar Jokoak bereziak izaten dira; beti dago ezustekoa eman dezakeen norbait, onerako zein txarrerako. Nire aldetik, behintzat, guztia emango dut dominaren bat erdiesteko. Ez nuke nire parte-hartzea anekdotikoa izaterik nahi.

Aukerak, behintzat, badituzu. Azken urteetan garaipen garrantzitsuak lortu dituzu: 2012ko Poloniako Munduko Kopan garaile; iaz, Txinako Sari Nagusian zilarrezko domina; eta Kazajstango, Miami eta Madrilgo probetan urrea.

Nire kirol ibilbideko unerik gozonenan nago. 2009an eman nuen aurrerapauso garrantzitsuena, munduko txapeldunorde izanda. Harrezkero, hobetuz joan naiz, eta esperientziak ere asko lagundu dit; besteak beste, txapelketetan egoten, gauzak nola egin eta erabakiak azkar hartzen jakiten.

Kanporaketetako parekatzeek zerikusirik izango al dute azken txanpara iristeko?

Bai, zerikusi zuzena du noren

aurka tokatzen zaizun kanporaketetan. Nire kasuan, hiruzpalau borroka irabazi beharko nituzke finalera iristeko. Kanporaketak zozketa bidez erabakiko dituzte bezperan, eta orduan jakingo dut nortzuk izango ditudan aurkari. Batzuk beste batzuk baino gehiago gustatzen zaizkizu aurkari gisa, noski. Munduko sailkapeneko lehenak dira gogorrenak, eta, azkenean, domina bat irabazi nahi badut, haiekin neurtu beharko ditut indarrak. Lehen kanporaketak horren zorrotzak ez izatea gustatuko litzaidake, baina mentalizatuta nago lehenago edo geroago haien aurka lehiatu beharko dudala. Gainera, horrela dominak zapore hobea du.

Dominaren bat lortuko bazenu, zer egiteko asmoa duzu?

Egia esan, ez dut horretan pentsatu. Oraingoz, domina bat etxera ekartzeko prestatzen eta entrenatzen aritu naiz. Hortik aurrera zer egingo dudan edo zer gertatuko den pentsatzen ez naiz hasi. Gauzak ateratzen badira, bikain, eta ateratzen ez badira, egindako lanarekin gustura geldituko naiz.

Mikel Agirrezabalaga

Eskubaloi jokalaria

«Urrezko domina lor dezakegula pentsatuz ekin behar diogu txapelketari»

**Espainiako selekzioak
Londreseko Jokoetarako
hautatu du Agirrezabalaga.
Hilabete bukaeran, uztailaren
29an, estreinako partida
jokatuko du Serbiaren aurka.**

Olinpiar Jokoetarako bidean da Mikel Agirrezabalaga (Zarautz, 1984). Bartzelona Intersport taldeko eskubaloi jokalaria Jokoak prestatzeko saioretarako deitu zuen Espainiako selekzioak. Valero Ribera hautatzaileak 18 jokalarri aukeratu zituen, eta Andorran kontzentrazioa egin eta Estrasburgoko Txapelketa jokatu ondoren, 14 jokalarri aukeratu ditu uztailaren 24an Londresera abiatzeko. Agirrezabalaga horietako bat da. Itxaropentsu zegoen, eta motiborik ez zitzaion falta. Urrian, Superkopa irabazi zuen selekzioarekin, eta, apirilean, Jokoetara sailkatzeko txapelketan ere itxura ona eman zuen. Ondorioz, berekin kontatu dute berriro ere hitzordu handirako.

Olinpiar Jokoetarako sailkatze fasea jokatzeko nobedadeetako bat izan zinen, eta badirudi gauzak txukun egin zenituela selekzioan geratzeko. Txapelketa hura erabakigarria izan al zen?

Hautatzaileak guztia hartzen du kontuan. Nik uste dut sailkatze fasea jokatu genuen taldearekin gustura geratu zela. Azken finean, finkatutako helburua lortu genuen, eta orain, antza denez, multzo hori bera mantendu nahi izan du Londreserako.

Orain talde barruan zaude, baina urte hasieran espero al zenuen Jokoetan egoteko aukerarik izatea?

Denboraldiari ekin eta partidak jokatzen hasten zarenean, zure taldearekin ongi aritu nahi duzu. Ahalik eta lorpen gehien eskuratu nahi duzu. Horren ondorioa, nola ez, selekzioarekin hautatua izatea zen. Urtean zehar gauzak ongi egin ditudala uste dut, eta gustura nago alde horretatik. Beraz, ez nuke esango ezusteko berria izan denik. Jokoak prestatzen aritu gara, baina guztiok ez gara bertan izango, lau kide taldetik

kanpo geratu baitira. Hori horrela, hasieran ez nekien ziur Londresen izango nintzenik. Egia esan, selekzioaren kontzentrazio guztietan izan naiz azkenaldian, nahiz eta gero taldean ez nauten hartu eta txapelketa garrantzitsuetatik kanpo geratu naizen. Aurten, gauzak aldatu egin dira, eta taldeak nirekin kontaktzen duela dirudi. Sailkatze faseaz gain, Superkopa jokatu eta irabazi egin genuen.

Jada erabakita dago zein jokalarri izango zareten Londresen. Beste batzuk baino aukera gehiago zenuela esan al daiteke?

Ez zait iruditu lekua ziurtatuta nuenik. Guztiok aukera berdina izan ditugu. Hautatzaileak 18-20 jokalariz osatutako talde batekin egingen du lan, eta multzo horretan nirekin kontatu du. Hala ere, Olinpiar Jokoetan 14 jokalarri bakarrik inskriba daitezke, eta hori izan da zailena, horien artean txokoa egitea.

Zure postuan, ezker hegalean, lehia handia izan al duzu?

Nire postuan ezustekoak egon dira. Alberto Entrerrios jokalarri bete-

ranoa ez dute deitu selekzioarekin, guztion harridurarako. Nirekin batera Antonio Garcia zegoen, denboraldi zinez bikaina egin duena, baina kontzentrazioan lesionatu egin zen eta ez da Londresen izango. Gure artean lehia egotea taldearen mesederako da, eta, egia esan, lehiakide onak izan ditut aurrez aurre.

Eta zer ekarpen egin diezaiokezu zuk selekzioari?

Hautatzaileak ongi ezagutzen nau, eta hark jakin badaki zer eman diezaiokekan taldeari. Gehienbat, kanpoko jaurtiketarekin asko lagundu dezaket, baita defentsako lanarekin ere.

Valero Ribera hautatzailearen gustukoa zara, behintzat. Berari esker iritsi zinen Bartzelonara lehen aldiz, 2002an.

Urte asko pasatu da Riberak Bartzelonara eraman ninduenetik. Ondoren, beste talde batzuetan aritu naiz, eta 2009an berriro deitu ninduen, jada Espainiako hautatzaile bezala. Ez dakit bere gustukoa naizen... Orain selekzioarekin nago, baina aurreko urteetan ez nau txapelketa garrantzitsuetarako hartu. Hari-harian ibili naiz beti; hau da, taldean sartu ala ez sartu.

Jokoetan lehiatzea zure ibilbide profesionalean zehaztuta zeneukan helburuetako bat al zen?

Profesionala zaren aldetik, aukerarik ez duzu baztertzen. Goi-mailan jokatzeko dugun guztiok nahi dugu Olinpiar Jokoetan parte hartu. Lehiaketa ezberdina da, eta ilusio handia sortzen du. Eskubaloi esparruan oso garrantzitsuak dira, gainera. Futbolearen ez bezala, Munduko eta Europako Txapelketak bi urtean behin jokatzeko ditugu. Jokoak, lau urtean behin izanda, bereziak dira.

Jokoetara iristea, ordea, ez da nahikoa. Zeintzuk dira selekzioaren helburu nagusiak?

Zailena lortu genuen, Jokoetara sailkatzea. Orain, gorantz begiratu



MIKEL AGIRREZABALAGA
eskubaloi jokalaria zarauztarrak
Barcelona Intersport taldearekin
jokatu du aurtengo denboraldian.

behar dugu, nahiz eta gure multzoa ez den batere erraza. Partida guztiak berdinduta egongo dira, zalantzarik gabe. Gure aldetik, lan txukuna egiteko itxaropena dugu, eta ahal izanez gero, dominaren bat lortzeko borrokatuko gara.

Multzo zailena da, Danimarka, Serbia eta Kroazia daudelako batere ere. Hungariari eta Koreari irabazita nahikoa izango al da final-laurdenetara sartzeko?

Ez dakit, bada. Hungaria bera ere oso selekzio zaila da. Gainera, Laszlo Nagy jokalaria taldera itzuli da berriro ere, eta, era berean, multzo indartsua osatu dute. Partidak irabazteko gogoz ariko dira.

Espainiako selekzioa pixka bat eraberrituta dago, jokalaria berrie-kin. Ezustea eman eta urrea irabazi dezakezuela uste al duzu?

Hautatzaileak aldaketa dezente egin ditu, eta hainbat jokalaria beterrano kanpoan utzi ditu azken deialdietan. Taldeak berritzen joan behar duela uste dut, eta hautatzaileak berak horren aldeko apustua egin du. Niri dagokidenez, jokatzeko dudak bakoitzean irabaztea gustatzen zait, eta nire helburua urrea lortzea da. Argi dago oso konplexua izango dela, baina lor dezakegula pentsatuz ekin behar diogu txapelketari. Nire nahia ahal dudak gehien jokatu eta txapelketa irabaztea da.

Aurtengo liga irabazi duzu Bartzelonarekin. Maila pertsonalean, zer moduzko urtea izan da?

Urte positiboa izan da, bi garaietan lortu baititugu: bata, Asobal Liga garrantzitsua eta bestea, Asobal Kopa. Tamalez, lau finalera ezin izan gara sailkatu. Oro har, dezente jokatzeko aukera izan dut. Osatutako denboraldi onaren fruitua izan da selekzioa itzultzea. Azken finean, Bartzelona munduko eskubaloi talderik onenetakoa da, goi-mailan lehiatzen duena, eta bertako jokalaria izanda, maila horretan jokatzera ohituta nago.

Ainhoa Murua

Triatleta

«Olinpiar Jokoetara iristea zaila bada, hirutan iristea ez da batere makala»

Abuztuaren 4an, 09:00etatik aurrera (hemen 10:00etan) Londresko Hyde Park-eko zirkuituan lehiatuko da triatleta zarauztarra, onenen artean helmugaratzeko asmoz.

ATENAS IZAN ZEN estreina, eta lau urte geroago, Pekin izan zuen jomuga. Laster, abuztuaren 4an, Olinpiar Jokoetan lehiatuko da hirugarren aldiz. Londres bere zain dago, eta Ainhoa Murua (Zarauz, 1978) sasoi betean iritsiko da irlara. Inoiz baino zorrotzago aritu da entrenatzen, eta denboraldi bikaina osatu du, emaitza ezin hobekak lortuz. Orain, egindako lana biribildu nahi du, duen gutzia emanaz. Animorik, behintzat, ez zaio falta. Herriko lagun talde batek elastikoak eta banderak atera ditu, *Aupa Ainhoa* lelopean, eta Zarauzko Triatloi Elkarteak ere omenaldi xumea egin zion ekainean, Zarauzko Triatloian. Eta babes oro biziki eskertzen du.

Bi Olinpiar Joko dituzu jada bizkarrean. Hirugarren honetara zer-nolako animoekin iritsi zara?

Olinpiar Jokoak ez dira egunero-ko zerbait izaten. Handiak dira, eta, egia esan, oso pozik nago sailkatze hutsarekin. Oraindik lasai nago, aste batzuk geratzen direlako, baina gaiaz asko hitz egiten ari da eta jendea ere galdezka ari zait. Hala ere, ez naiz hasi urduritzen.

Aurreko parte-hartzeekin konparatuz, ezberdina izango al da?

Orain esperientzia gehiago dut, eta jakin badakit Jokoen funtzionamendua zein den. Kirolari bezala, gainera, azken urteetan maila hobea lortu dut, eta, alde horretatik, abantaila pixka bat ere badut.

Euskal kirolarien artean gutxi izango dira hiru aldiz parte hartu dutenak, ezta?

Batzuk bagara, baina, egia esan, ez zara horretan pentsatzen hasten. Joko batzuetara iristea zaila bada, hirutan iristea ez da makala. Beharbada, gerora gehiago baloratuko dut, baina jabetzen naiz horretaz.

Denboraldi hasieratik jada bermatuta izan duzu jokoetarako tokia. Horrek olinpiadetarako hobeto prestatzeko aukera ematez gain, konfiantza gehiago eman al dizu lehiatzeko orduan?

Iazko urte amaieran bete nituen kriterioak, eta Londresko txartela lortu nuen. Prestaketari dagokionez, aurreko urteetan bezala egin dut, baina Munduko Kopan lehiatzerakoan lasaiago aritu naiz. Urte hasierako lehiaketetan, beste herrialdeetan triatleten artean lehia handia ikusi da, Jokoetarako selekzioa zeintzuk osatuko zuten finkatu arte. Emaitzetan ere antzeman da, presioarekin zailagoa dela lehiatzea.

Garbi dagoena da sasoiko zaudela, eta lorpen handiak eskuratu dituzula azkenaldian: Portugal (1.), Sidney (6.), Europeoa (2.), Madril (6.)... Zu zeu ere ezustean harrapatu al zaitu?

Negua oso ongi aprobetxatu dut, Lanzaroten eta Almerian aritu bainaiz entrenatzen. Prestaketan ongi nenbilela sentitzen nuen, korrika ere sekula baino hobeto, baina lehiatzen

hasi arte ez dakizu nola erantzungo duzun, ezta aurkariak zer moduz dauden ere. Sidneyra gogotsu iritsi nintzen, baina korrika saioan aurrekaldean egoteak harritu ninduen. Gero, nire maila ona berretsi egin nuen Europako Txapelketan eta Madrilen. Ez zela lasterketa bateko kontua izan, alegia. Pozik nago neguan eginiko lana bere fruituak ematen ari delako.

Kirol gehienetan adinean aurrera egin ahala marka xumeagoak lortzen dira. Zure kasuan, ordea, alderantzizko joera egon dela esan al daiteke?

Pixkanaka-pixkanaka joan naiz beti, pausoz pauso. Urte batetik bestera sekulako jauzirik eman gabe, baina hobetzen joan naiz. Azken urteetan hobetzen jarraitu dut, eta iaiztik hona pauso bat aurrera eman dut. Jakin banekien hor aurrean egoteko korrika gauzak hobetu behar nituela, eta prestaketa horri begira egin dugu batik bat; betiere, igeriketako gaitasunak mantenduz.

Bi diziplina horietan egindako lan gogorra izan al da orain duzun maila altuaren gakoa?

Azken finean, hiru diziplinak entrenatu ditut gogor, baina helburua korrikako atala zaintzea zen. Triatloi probak korrikako saioarekin bukatzen dira, eta, orduan, igerian eta bizikletan orain arte egindakoa mantendu dugu, baina korrikako 10 kilometroak azkarrago egin nintza-keela ikusten nuen, eta hori prestatzen aritu naiz buru-belarri.

Ranking-eko lehen sailkatuekin borrokatzeko gai zarela ikusita, domina bat lortzea ametsa da ala posible ikusten duzu?

Amets polita izan daiteke, baina oso zaila ikusten dut. Badira aukera gehiago duten hainbat triatleta, maila bat gorago daudenak, eta, gero, triatleta asko gaude, diploma olinpikoagatik borrokan egon gaitzenak. Egun bateko lasterketa denez, edozer gerta daiteke. Igerike-



AINHOA MURUA Madrilgo proban, bere babesle Victory Endurance etxeak utzitako argazkian.

tan multzotan zatitzeko itxura guztia du; izan ere, selekzioek aukeratu dituzten triatletak ikusita, badirudi gogor egingo dutela igeri. Antza denez, ingelesak lasterketa apurtzera joango dira, hasiera-hasieratik taldetxo bat buru jartzeko. Igerilari bat deitu dute taldera, Helen Jenkins faboritoari laguntzeko. Beraz, estrategia egokiena multzo horretan sartzea izango da, hor aurrean egoteko. Baina, lasterketa batean edozer gerta daiteke, eta Olinpiar Jokoetan ezusteak egon izan dira beti.

Orain arteko bi parte-hartzeetan ez zitzaizkizun gauzak nahi bezala atera (Atenas 24. / Pekin 28.). Arantza horiek nola baretuko dira, zein emaitzarekin?

Atenasen gustura geratu nintzen, nire lehen Jokoak zirelako. Pekinetik, aitzitik, arantza txiki batekin itzuli nintzen. Sasoiko banengoan ere, gaixorik ibili nintzen eta proban bertan erorikoa izan nuen. Londresen aurreko bi postuak hobetu nahiko nituzte, baita gauzak ahalik eta ondoen egiten saiatu ere. Guztia eman nahi dut, eta lasterketa ona egin.

Diploma olinpikoa lortzea posible litzateke, lehen zortzietan sailkatuta, baina 30. postuan bukatzeko aukera ere badago. Egun txarra baduzu, postu asko egiten duzu atzera. Korrikako zatian, azkenean, segundo gutxiko aldearekin helmugaratzen gara guztiok.

Munduko Kopako zirkuituan hainbat aldiz osatu duzu Londresko triatloi ibilbidea: Hyde Park. Gustukoa al duzu? Zer moduz moldatzen zara bertan?

Zirkuitu polita da, baina bizikleta-ko zatia, nire gusturako, lauegia da. Ibilbidea pixka bat gogorragoa izatea gustatuko litzaidake niri. Londreskoa, ordea, ordeka da erabat. Alde horretatik, guztiok iladan joango garela dirudi. Horren laua izanik, lehiakideak indartsu iritsiko dira azken txanpara, eta korrikaldia oso azkarra izango dela aurreikusten dut. Edonola ere, egunean bertan ikusi beharko dugu zer gertatzen den. Lasterketa igerian apurtu eta multzotxo bat aurretik jartzen bada, atzetik gogor egin beharko dugu lan haiek harrapatzeko.

Mendiko bizikletan

ZUMAIAKO UDALEKO

Kirol sailak hainbat kirol jarduera antolatu ohi du uda sasoirako, herriko kirol elkarteekin elkarlanean. Hori-tako bat mendiko bizikleten ikastaroa da, Zumaiaiko Txirrindulari Elkarteko kideen eskutik bideratzen dutena. Bospasei urte daramatzate, afizioa sortze aldera, 8 eta 16 urte bitarteko neska-mutilak modalitate horretan trebatzen. «Mendiko bizikletekin irteerak egiten dituen helduen talde bat bada herrian, baina gazteei zuzendutakorik ez zegoen ezer. Beraz, haientzako zerbait eskaintzea bururatu zitzaigun», aditzera eman du Zumaiaiko Txirrindulari Elkarteko kide eta ikastaroko arduradun Jesus Mari Osak.

Neska-mutil gehienek dute gaur egun mendiko bizikleta, baina ia guztiek herri ba-

rruan erabiltzen dute. «Gainera, askok ez dakite platerak eta pinoiak behar bezala erabiltzen. Pedal kolpe arinak eman beharrean, gogor eginda joaten dira. Orduan, mendiko bizikletak dituen aukerak eta abiadura-aldagailuen funtzioa erakustea da gure asmoa», azaldu du Osak.

Azalpen teknikoekin batera, irteera laburrak egiten dituzte herriko txoko edo auzo ezberdinetara mendi bideetatik: besteak beste, Artadira, Oikiara edo Elorriagara. «Gazte askok hasieran uste du ezin dela iritsi, baina abiadura arin jarrita, inolako arazorik gabe iristen dira. Jakina, ongi pasatzeko helburuarekin joan behar dute, eta ez lasterka egitera. Aurrena bizikletan ibiltzen ikasi behar dute, eta gero azkar ibiltzeko garaia etorriko da». Gauzak horrela, teoria eta praktika uztartzen dituzte ikastaroan.

Mendiko bizikletako ikastaroak uztailean bakarrik egingo dituzte; abuztuan ez dute jarduerarik antolatu. Irteerak egunero-egunero ari dira egiten, goizetan, ordutegi ezberdinetan; Lubaki kiroldegi ondoko skate parkean elkartzen dira. Inskripzioa astekoa da, eta neska-mutilek nahi beste aldiz eman dezakete izena: «Batzuk astebeterako etortzen dira; beste batzuk, berriz, bi astetarako... Hilabete osorako hartzen duenik ere bada», zehaztu du. Aurtan, oraingoz, 28 gazte izango dituzte hilabete osoan; aste bakoitzean zazpi edo zortzi lagunekin ari dira, hain zuzen ere. Bertan parte hartu nahi duenak Itsas Kiroldegian eman behar du izena.

Gazteen artean txirrindularitzarako zaletasuna sustatu nahi dute ikastaro honekin, eta, bide batez, Zumaiaiko Txirrindulari Elkartera erakarri. Helburu berarekin, udaberri partean herriko ikastetxeetan ere ikastaroak ematen dituzte, astean behin. «Gero, norbaitek errepedeko txirrindularitza praktikatu nahiko balu, elkarteak berak utziko lioke bizikleta».



DATUA

25

Duela 25 urte, 1987ko ekainaren 27-an, Realak bere lehen eta azken Errege Kopa lortu zuen. Zaragozako La Romareda futbol zelaian jokatu zuten txapelketako finala, Atletico Madrilen aurka, eta garaipena penaltien bidez lortu zuten txuri-urdinek. Partida bina berdindu zuten, baina penaltietan nagusitasunez irabazi zuten: Realak egindako lau jaurtiketak sartu zituen, eta Luis Arkonada atezainak bi gertzea lortu zuen. John Benjamin Toshack izan zuten entrenatzaile, eta hamaikakoan, besteak beste, Larrañaga, Bakero, Zamora, Begiristain, Lopez Ufarte eta Arkonada bera zeuden.



BA AL DAKIZU...

Euskal futbol talde batek lortu duen azken titulua izan zela?

80eko hamarkada urrezko aroa izan zen euskal futbol taldeentzat. Realak bi Liga (1980-1981 eta 1981-1982) irabazi zituen, Superkopa bat (1982-1983) eta Errege Kopa bat (1987). Athleticek beste bi Liga irabazi zituen (1982-1983 eta 1983-1984), Superkopa bat (1983-1984) eta Errege Kopa bat (1984). Realaren 1987ko koparen garaipenaren ondoren, beste inork ez du titulurik lortu, nahiz eta azken urtetan Athletic-ek hainbat final jokatu duen. Aurten, esaterako, Errege Kopa-koa eta UEFA League-koa galdu ditu.

Eskubaloia, hondartza eta, batez ere, lagun giroa

Txaparrotan 9. Hondartzako Eskubaloi Txapelketan eskolarteko 91 talde aritu ziren jokoan; 678 neska-mutil, hain zuzen ere.

Zarautz



Eskubaloia festa

ospatu zuten uztaileko lehen asteburuan. Zarautz Kirol Elkarteko eskubaloi sailak antolatuta, Txaparrotan 9. Hondartzako Eskubaloi Txapelketa jokatu zuten gazteek nahiz helduek. Urtero bezala, hondartzan jokatu zuten partidak, Desertu Txikian atonduko joko eremutan. Urtetik urtera gero eta parte-hartze handiagoa duen kirol egitasmoa da. Aurten, eskolartekoen artean, 91 taldek eman dute izena: benjamin mutiletan, 21 talde eta nesketan, 8 talde; alebin mutiletan, 16 talde eta nesketan, 13 talde; infantil mutiletan, 19 talde eta nesketan, 14 talde. Guztira, 678 neska-mutil aritu ziren jokoan. Kanporaketak ostiralean jokatu zituzten –infantil mutilak larunbatean aritu ziren–, eta final-laurdenak, finalerdiak eta finalak, berriz, igande goizean.

Eskualdeko Arrauna

Erronkak tostaz tosta

SAN MIGUEL LIGA osatzen duten hamabi taldeen artean, Zumaia da eskualdeko ordezkari bakarra. 2005etik daude gorengo mailan, eta ez dute hortik jaisteko asmorik. Helburu garbia dute: etxeko arraunlariekin lan eginez, mailari eustea. Aurtengo denboraldia iazkoa baino zailagoa izango dela aurreikusten dute. Hala ere, gogorik ez zaie falta, eta hori lehen estropadatik erakusten ari dira.

KAE 1 mailan, berriz, Oriok, Getariak eta Zarautzek egin dute bat. Oraingoan, Orio da nagusi. Nagusitasun osoz, sailkapeneko buruan jarri da. Iaz maila galdu ondoren, TKEra itzultzea da oriotarren erronka, eta, oraingoan, bide onetik doaz. Mailaz igotzea xede ez ezik, beharra ere badela onartu dute. Zarautzarren eta getariarren helburuak, aldiz, ez dira horren asmo handikoak. Zarautz duela bi urte jaitsi zen KAE 1era, eta maila horretan lan txukuna egitea dute helburu. Aurrean ibili



nahi dute, baina badakite zaila izango dela; besteak beste, Orio, Santurtzi, Isuntza eta Donostiarra bezalako ontziak daudelako. Getariaren lehenasuna, berriz, maila mantentzea da; iaz igoera lortu zuten eta lehen aldiz ari dira KAE 1 mailan.

Emakumezkoek bi liga dituzte jokoan; Euskotren Liga eta Gipuzkoako Liga. Bietan izango dira

ZUMAIA eskualdeko ordezkari bakarra da San Miguel Ligan.

Getaria-Tolosa eta Zumaia; Orio, bien bitartean, Gipuzkoako Ligan bakarrik. Euskotreneko iazko txapelduna da Getaria-Tolosa, eta, printzipioz, bera da aurtengo traineru faborittoa. Hala eta guztiz ere, gainerako traineruak ere sendo lehiatuko dira: lehen jardunaldian zumaia-reek eraman zuten bandera eta bigarrenean, galiziarrek.

Traineru denboraldiko egutegia

Uztailak 21.

- Pedreñako Bandera (TKE eta Euskotren).

- Camargoko Bandera (KAE 1)

- Hibaiaiko Ikurriña (KAE 2)

Uztailak 22.

- Pasai San Pedroko Bandera (TKE eta Euskotren).

- Orioko Bixigu Eguna Ikurriña (KAE 2)

Uztailak 28.

- Pasai Donibaneko Bandera (TKE).

- Getariako Estropada (KAE 1)

- Getxoko Ikurriña (KAE 2).

Uztailak 29.

- Getxoko Ikurriña (TKE eta Euskotren).

- Lekeitioko Ikurriña (KAE 1)

- Pasaiako Ikurriña (KAE 2)

Uztailak 31.

- Euskadiko Txapelketa, Orion

Abuztuak 4.

- Orioko Estropadak (KAE 1 eta Gipuzkoako Liga)

- Plentziako Ikurriña (KAE 2)

Abuztuak 11.

- Hondarribiko Bandera (TKE eta Gipuzkoako Liga)

- Ondarroako Ikurriña (KAE 1)

Abuztuak 12.

- Zumaiaiko Ikurriña (TKE eta Euskotren).

- Hondarribiko Ikurriña (KAE 1)

- Areetako Ikurriña (KAE 2)

Abuztuak 15.

- Zarauzko Ikurriña (KAE 1 eta Gipuzkoako Liga).

- Castroko Bandera (KAE 2)

Abuztuak 18.

- Zarauzko Estropadak 1 (TKE eta Euskotren Liga)

- Santanderreko Bandera (KAE 2)

Abuztuak 19.

- Zarauzko Estropadak 2 (TKE eta Euskotren Liga)

- Bilbo Hiria Ikurriña (KAE 1)

Abuztuak 25.

- Castroko Bandera (TKE)

- Santoñako Bandera (KAE 1)

- Colindreseko Bandera (KAE 2)

Abuztuak 26.

- Portugaleteko Ambilamp Bandera (TKE)

- Mundakako Ikurriña (KAE 2)

Abuztuak 30.

- Kontxako Bandera (Sailkatze saioa)

Irailak 1.

- KAE mailako play-off kanporaketa

Irailak 2.

- Kontxako Bandera (Lehen igandea)

Irailak 9.

- Kontxako Bandera (Bigarren igandea)

Irailak 15.

- TKE-ko play-off kanporaketa;

Bermeoko Ikurriña

Irailak 16.

- TKE mailako play-off kanporaketa;

Portugaleteko El Corte Inglés Bandera

Kirol AGENDA



Getaria-Zarautz Igeriketa Trabiesia

Getaria-Zarautz 42. Igeriketa Trabiesia jokatuko dute uztailaren 29an. Aurten parte-hartzaileen marka hautsi dute, 1.400 igerilarik izena eman ondoren. Zeharkaldia uztailaren 29an egingo dute, eta azken urteetan egin den moduan, irteera taldeetan egingo dute, txanoko koloreen arabera. Irteera 12:00etan izango da Getariako Portutik eta helmuga Zarauzko hondartzan, Munoa parean. Infantil mailakoek, berriz, Zarauzko moilatik Munoara egingo dute igeri, 11:00etatik aurrera.

Biatloia

Getariako XI. Salbadore Biatloia

Eguna: Uztailak 21.

Ordua: Izena egunean bertan eman beharko da, 11:00ak bitartean. Probari 12:00etan emango diote hasiera.

Lekua: Malkorbe hondartzatik abiatu eta herriko frontoian bukatu.

Ezaugarriak: Hasieran, 550 metro egingo dituzte igerian, eta, ondoren, 3.500 metro korrika. Izen-ematea: 6 euro.



Mendia

Zumaia III. Flysch Trail

Eguna: Uztailak 22.

Ordua: Irteera 10:00etan egingo dute, Eusebio Gurrutxa plazatik.

Lekua: Zumaia eta Deba arteko flysch biotopoa zeharkatzen du mendi lasterketak.

Ezaugarriak: Helduek 31,2 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute, eta junior mailakoek, 16 kilometroko ibilbidea. Informazioa: www.zumaiaflyschtrail.com



Abuztuaren bukaeran, munduko Surf Txapelketa

Zarauzko Surf Elkarteak San Miguel Pro Zarautz antolatuko du datorren abuztuaren 28tik irailaren 2a bitartean. ASP Men zirkuituko sei izarretako lehiaketa izango da, eta dozena bat euskal surflarirekin batera, nazioarteko onenak izango dira; besteak beste, Matt Banting australiarra eta William Cardoso brasildarra

Zumaia Zesta-Punta Miami nagusi



Imanol Lopez eta Iñaki Osa Goikoetxea zesta-punta jokalaria zumaiaarrak izan dira nagusi Miami udako denboraldian. Lopezek Most Wins titulua irabazi du; hau da, bera izan da denboraldian kiniela gehien irabazi dituen pilotaria, Osa Goikoetxearen aurretik. Binakako txapelketan, Osa Goikoetxeak aurrelari onenaren titulua irabazi du eta Lopezek atzelari onenarena. Buruz buruko txapelketari dagokionez, Osa Goikoetxea nagusitu da beste guztien gainetik; Lopez bigarren sailkatu da. Bikotea Euskal Herrira itzuli da, ohiko Munduko Txapelketak jokatzeke asmoz, banaka zein binaka.



ERRONKA

Norvegia futbol konexioa



Iosu Esnaola futbol jokalaria oriotarra Sarpsborg'08 talde norvegiarrarekin aritu zen probatzen ekainean, baina azkenean Noja taldean jarraituko du.

Sarpsborg'08 futbol talde norvegiarrean jokatzeko aukera atera zitzaion Iosu Esnaola oriotarrari, ekaina bukaeran. Ezustean suertatutako aukera izan zen: «Suitzan nengoen oporretan. Ostiral arratsaldean telefono dei bat jaso nuen, Norvegiara joateko proposamenarekin. Baiezkoa eman, eta igande arratsaldean hegazkina hartu nuen, astelehen goizean entrenatzeko». Sarpsborg'08 taldearen interesa eta bertan jokatzeko

ko aukeraren berri bazuen: «Nigatik informe onak jaso zituztela eta zentral baten beharra zutela jakin banekien, baina horrelako albisteak askotan iristen zaizkigu futbolariok, eta beti geratzen zaizu zalantza, zer sinetsi eta zer ez. Dena dela, honek zerbait serioagoa zela ematen zuen, baina lasai egoteko esan zidaten».

Aste osoa eman zuen taldearekin entrenatzen, eta «esperientzia oso ona» izan zela adierazi du: «Hemendik kanpo futbola nola bizi duten ezagutzeko aukera izan dut». Sarpsborg'08 taldeko jokalarietako bat espainiarra da, Alvaro Baigorri madrildarra, eta harekin izan zuen harreman gehien Norvegiako egonaldian: «Erlazio ona izan nuen berekin, eta aste osoan nitaz arduratu zen. Han izan nintzen denboran ez zitzaidan ezertxo ere falta izan. Perfektua izan zen». Gainerako tal-

IOSU ESNAOLA Norvegiako Sarpsborg 08 taldearekin probak egiten aritu zen astebetetz.

dekideek ere harrera beroa egin ziotela dio: «Egunero etortzen zitzaidan norbait bazkaltzera edo afaltzera gonbidatuz, herria erakusteko prestatu edo edozertan laguntzeko pronto. Bigarren mailako futbol taldea bada ere, ematen dizuten tratua sekulakoa da. Ez dakit Espainiako lehen mailan horrelakorik ba ote den. Xehetasun txikiena ere pila bat zaintzen dute».

Azkenean, akordiorik ez

Norvegiatik bueltan, Sarpsborg'08 taldeko arduradunak eta bere agenteak ados jartzeko harremanetan hasi ziren. Kontua luzatzen ari zen, ordea, eta zirt edo zart egin behar zuela ikusirik, Noja talde kantabriarrarekin jarraitzea erabaki zuen. «Norvegiarrak nirekin kontaktatzen zuten, baina itxaron egin beharko nuela esaten zidaten, eta bitartean ezin zidatela eskaintza garbirik egin. Antza denez, beste taldekide bati kontratua desegin behar zioten ni sartzeko. Ezin nuen zain eta zain egon, eta gero, beharbada, talderik gabe geratu».

Etxetik hurbil «gustuko» talde eta entrenatzaile bat zuela eta, Nojako presidentearekin hitz egin zuen uztailearen 10ean, eta egun horretan bertan akordioa sinatu zuen kantabriarrarekin. «Sarpsborg'08 taldetik ezer garbirik esaten ez zidatenez, beste urtebetetz Nojan jarraitzea erabaki dut, eta gustura nago hartutako erabakiarekin».

Esnaolak Realarekin egin zuen debuta duela bi urte, baina, ondoren, taldez talde ibili zen, batetik bestera, zorte handirik gabe. Azken denboraldian Nojan jokatu du, maila ona emanek, eta taldea Hirugarren mailatik Bigarren B mailara igotzen lagundu du. «Aurtengo helburua maila mantentzea izango da, hortzak estuturik», aditzera eman du futbol jokalaria oriotarrak.